

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Lehendakariak aurten urrezko ezteiak betetzen dituzten Nafarroako Caja Rural-en Solera klubeko 188 bazkide hartu ditu

Barcinak adierazi du omenaldia jasotako 94 senar-emazteak "adibide onenak direla lan eginez nahi duguna lor daitekeela konturatzeko"

Martes, 23 de octubre de 2012

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak gaur eguerdian harrera egin dira Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako egoitzaren klaustro isabeldarrean aurten urrezko ezteiak betetzen dituzten Nafarroako Caja Ruraleko Solera klubeko 188 bazkideei (94 senar-emazte).

Nafarroako Caja Ruraleko lehendakari José Luis Barriendok ere esku hartu duen ekitaldian zehar, Barcinak bertaratutakoei zorionak eman dizkie. Haiengandik esan du "adibide onenak direla lan eginez nahi duguna lor daitekeela konturatzeko".

"Bizitzen ari garen egoera zuek baino hobeto ez du beste inork ulertzen", adierazi du Lehendakariak. Eta horri buelta emateko, "zuen bizitzako une zailtan gertatu izango zitzaizuen moduan, buruz buru eta etenik gabe lan egitea besterik ez zaigu geratzen" azaldu du. Lehendakariak ahalegina eta sakrifizioa bezalako balioak aipatu ditu, bai eta ilusioa eta jarrera baikorra ere.

[Omendutako 94 senar-emazteak](#) Nafarroako 37 udalerritatik etorri dira: Ablitas, Andosilla, Añorbe, Artaxona, Azagra, Barasoain, Buñuel, Burlata, Cadreita, Caparroso, Carcar, Zarrakaztelu, Cascante, Corella, Cortes, Deikaztelu, Lizartza, Funes, Fustiñana, Larraga, Lerin, Milagro, Murchante, Noain, Oteiza, Iruñea, Azkoien, Ribaforada, San Adrian, San Martin Unx, Santacara, Sesma, Tuter, Uharte-Arakil, Valtierra, Viana eta



Barcina Lehendakaria eta Barriendo, María Ángeles Landa eta Luis Garrido senar-emazteekin.



Nafarroako Caja Ruraleko Solera klubeko bazkideei beren urrezko ezteiangatik egindako harrera.

Villafranca.

Bertiz laukotearen musikak girotu duen ekitaldia Nafarroako Caja Rural-ek Solera klubeko bazkideentzat antolatutako programaren barnean sartzen da, aurten ezkondu zireneko 50. urteurrena ospatzen dutela eta; Iruñeko katedralean egindako ospakizun erlijioso eta 271 pertsonentzako bazkari bat ere aurreikusi dira programaren barnean.